Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Akta 3/2019

**HERRITARGOAREN INFORMAZIO-BATZORDEAK 2019KO URRIAREN 24EAN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE CIUDADANÍA EL DÍA 24 DE OCTUBRE DE 2019.**

**BILDUTAKOAK** / **ASISTENTES**:

**BATZORDEBURUA:** / **PRESIDENTA**:

KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

**BATZORDEKIDEAK:** / **VOCALES**:

(Jnak./Andk.) / (Sras./Sres.)

AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ-PNV)
ARANTZA RICA ALVAREZ (EAJ-PNV
IRANTZU URIARTE GOMEZ (EAJ-PNV)
IÑIGO URKITZA YAÑEZ (EAJ-PNV)
FRANCISCO JAVIER ELORZA HORMAECHE (PP)
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA (PP)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EH BILDU)
ITXASO MASEDA SARATXO (EH BILDU)
ASUNCIÓN OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA (PSE-EE)
IGNACIO ROBLES FERNÁNDEZ (ELKARREKIN PODEMOS)

**IDAZKARIA** / **LA SECRETARIA**

LARRAITZ ABERASTURI IBARRA andrea

Udaletxeko Osoko Biltzar-aretoan, 2019ko urriaren 24ean, Herritargoko Informazio-Batzordea bildu da, 11:07etan, Keltse Eiguren Alberdi andre zinegotzia batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a 24 de octubre de 2019, se reúne a las 11:07 la Comisión Informativa de Ciudadanía bajo la presidencia de la concejala doña Keltse Eiguren Alberdi, con asistencia de los corporativos expresados.

Bileran egon dira hauek: Montserrat Barreña Rodriguez eta Mirene Zabalgogeazcoa Llodio, Getxolaneko teknikariak.

Asisten a la sesión Montserrat Barreña Rodriguez y Mirene Zabalgogeazcoa Llodio, Técnicas de Getxolan.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Lehendakariak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez, bilkura hastea erabaki du. Horrela, deialdiko Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose a tratar los temas incluidos en el Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

**1.- 2019KO APIRILAREN 16AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.**

**1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 19 DE SEPTIEMBRE DE 2019.**

Aurreko batzarraren akta, 2019ko irailaren 19koa, aho batez onetsi da.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 19 de septiembre de 2019.

**1.- ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA.**

**2- INFORMACIÓN GENERAL DEL ÁREA.**

**2.1.- ENPRESEI PRESTAKUNTZA EMATEA.**

**2.1.- FORMACION A EMPRESAS.**

Iñigo Urkitza Yañezek Montserrat Barreña Rodriguez Getxolaneko teknikaria aurkeztu du, eta azken horrek enpresentzako prestakuntzari buruzko informazioa eman du.

Iñigo Urkitza Yañez presenta a Montserrat Barreña Rodriguez, Técnica de Getxolan, que expone la información relativa a formación a empresas.

Montserrat Barreña Rodriguezek esan du Getxoko enpresen lehiakortasuna hobetzeko, Getxolanek taldekako aholkularitza tailerrak eskaintzen dituela enpresentzako, eta hori guztia enpresen kudeaketa gabeziak betetzeko legeriari, alor fiskalari eta abarri dagokionez. Gainera, prestakuntza saio horiek emateko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzen dira, besteak beste Bizkaiko Foru Aldundiarekin, CECOBIrekin (merkataritza alorrean) BASQUETOUR-ekin (turismo alorrean) eta SPRI-rekin (ezarpen teknologikoaren alorrean).

Montserrat Barreña Rodriguez informa que con el objetivo de mejorar la competitividad de las empresas de Getxo, Getxolan ofrece talleres de asesoramiento grupal para las empresas a efectos de cubrir sus carencias de gestión en materias legales, fiscales, etc., en colaboración con otras entidades tales como Diputación Foral de Bizkaia, CECOBI en el sector del comercio, BASQUETOUR en materia de turismo y SPRI en materia de implementación tecnológica.

Esan du 2019ko irailaren 24an Sustapen Ekonomikoko Arloko Plan Estrategikoa aurkeztu zutela, eta horren oinarrietako bat

Añade que el 24 de septiembre de 2019 se presentó el Plan Estratégico del Área de Promoción Económica, siendo uno de los

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



dela Getxoko enpresen potentzialtasuna sustatzea.

Gaur egun martxan dago "Getxo Krea Pro" izeneko programa, Sormen eta Kultura Industrietako profesionalei zuzendutakoa, horien kokapen profesionala hobetzeko eta tresnak eta trebetasunak eskuratzeko enpresari gisa ekintzailetza gauzatzeko. Jakinarazi du programa urriaren 3an hasiko dela eta abenduan bukatuko dela. Metodologiaren eta edukien oinarria profesionalen beharretan oinarrituta daude, eta fase eta jarduera ezberdinak dituzte, besteak beste esperientzian oinarritutako prestakuntzak eta monografiko espezializatuak.

## 2.2.- GETXO TXUKUN

Ainhoa Galduroz Alvarezek azaldu du "Getxo Txukun" Getxoko Udalak bultzatutako ekimena dela, eta bakoitzaren auzoa hobetzeko dauden proposamenak, beharrizanak eta kezkak ezagutzea duela helburu. Zehazki esan du "Getxo Txukun" ekimena Hezetasun auzoan eta inguruetan gauzatuko dutela azaroaren 15etik abenduaren 1era.

Zehaztu du ekimenetik ondorioztatzen diren jarduketak obra txikien aurrekontuarekin egin beharko direla, eta ez inbertsio eta ekipamendu handietako partidekin.

Ekimen horretarako bitartekoak izango dira kartelak, triptikoak postontzietan banatzea, online galdetegiak, hiru postontzi jartzea, Villamonteko Kultur Etxean jarriko duten kutxa bat eta karpak ezartzea azaroaren 22an eta 23an. Era berean, esan du ekimen horri buruzko informazioa udalaren webgunean argitaratuko dela, parte-hartze aurrekontuen ereduari jarraiki.

ejes fomentar la potencialidad de las empresas del municipio de Getxo.

En la actualidad está en marcha el programa "Getxo Krea Pro", destinado a profesionales de las Industrias Creativas y Culturales, para mejorar su posicionamiento profesional y obtener herramientas y habilidades clave para un emprendimiento como empresarios. Indica que el programa comienza el 3 de octubre y finaliza en diciembre. Tanto la metodología como los contenidos están basados en necesidades detectadas en profesionales, y cuenta con distintas fases y actividades como formaciones experienciales y monográficos especializados.

## 2.2.- GETXO TXUKUN

Ainhoa Galduroz Alvarez explica que "Getxo Txukun" es una iniciativa impulsada por el Ayuntamiento que pretende conocer de primera mano las propuestas, necesidades e inquietudes del vecindario para hacer de los barrios un lugar mejor. En concreto, informa que se va a llevar a cabo la iniciativa "Getxo Txukun" en el barrio de La Humedad y alrededores del 15 de noviembre al 1 de diciembre.

Matiza que las actuaciones que resulten de esta iniciativa deben ejecutarse con presupuesto de pequeñas obras, y no de partidas de grandes inversiones o equipamientos.

Se utilizarán como medios para esta iniciativa la cartelería, buzoneo de trípticos, formularios on line, tres buzones, una urna en el Aula de Cultura de Villamonte y la instalación de carpas los días 22 y 23 de noviembre. Asimismo, indica que esta iniciativa se publicará en la Web Municipal, con el mismo estilo que los presupuestos participativos.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Herritarren proposamenak aztertu ondoren txosten bat egingo da emaitzekin eta txosten hori Hezetasun auzoko postontzietan banatuko da eta udalaren webgunean ere argitaratuko da.

Ibon Rodriguez Larrinagak prentsa oharra argitaratu aurretik eta jarduera hasi aurretik informazioa bidali izana eskertu du.

Tras el estudio de las propuestas de la ciudadanía se emitirá un informe de resultados que se buzoneará en la zona de La Humedad y se publicará en la Web Municipal.

Ibon Rodriguez Larrinaga agradece el traslado de la información con antelación a la publicación de la nota de prensa y al comienzo de la actividad.

**2.2.- "ARGIA EREITEN" GETXOKO EUSKARA SARIA.**

Irantzu Uriarte Gomezek esan du udalak beste behin ere "ARGIA EREITEN" Euskara Saria banatuko duela aurten. Bertan, euskararen erabileran babesa, sustapena edo hedapena gauzatu duten pertsona fisikoak edo juridikoak saritzen dira. Esan du urriaren 25ean irekiko dela edizio honetako proposamenak aurkezteko epea, eta sari banaketa azaroaren 26an izango dela, arratsaldeko 20:00etan Muxikebarrin.

**2.2.- "ARGIA EREITEN" GETXOKO EUSKARA SARIA.**

Irantzu Uriarte Gómez informa que el Ayuntamiento organiza este año una nueva edición del Euskara Saria "ARGIA EREITEN", que distingue a aquellas personas físicas o jurídicas que se hayan destacado en el desarrollo de actividades consistentes en el apoyo, promoción o difusión del uso del euskera. Indica que hasta el próximo 25 de octubre estará abierto el plazo de presentación de propuestas para esta edición, y que la gala de este premio se celebrará el 26 de noviembre a las 20:00 en Muxikebarri.

**2.- ESKE-GALDEAK.**

Presidenteak esan du bilera honetako gai-zerrendan gehitu direla aurreko bileran erantzun gabe geratu ziren galderak.

**3.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

La Presidenta indica que se han incorporado al orden del día de la presente sesión las preguntas cuya respuesta quedó pendiente en la anterior comisión.

**3.1.- GETXO BONO**

Iñigo Urkitza Yañezek hitza eman dio Mirene Zabalgogeazcoa Llodio Getxolaneko teknikariari, eta berak erantzun du Itxaso Maseda Saratxok aurreko bileran "Getxo Bonori" buruz egindako galdera.

Mirene Zabalgogeazcoa Llodiok azaldu du "Getxo Bonoren" kanpaina berria Getxo Enpresa merkatarien elkartearekin

**3.1.- GETXO BONO**

Iñigo Urkitza Yañez da la palabra a Mirene Zabalgogeazcoa Llodio, Técnica de Getxolan, para dar respuesta a la pregunta relativa al "Getxo Bono" que planteó Itxaso Maseda Saratxo en la anterior Comisión.

Mirene Zabalgogeazcoa Llodio explica que la nueva campaña de "Getxo Bono" se pone en marcha con la colaboración de la Asociación

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



lankidetzan jarri dela martxan, eta VIII. edizioa antolatzeko udalerriko hainbat merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresek lan egin dutela, kanpainan parte hartu dutelarik hasiera-hasieratik. Helburu nagusia udalerriko dendetako kontsumoa sustatzea da.

de comerciantes Getxo Enpresa, realizando la VIII edición con el apoyo de numerosas empresas comerciales, hosteleras y de servicios del municipio que vienen participando en esta campaña desde su comienzo, siendo el principal objetivo es fomentar el consumo en los establecimientos del municipio.

2019. urtean 3.000 bono banatuko dira, eta udalerriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen enpresek kanpainan parte hartu ahal izango dute.

Para este año 2019, se vuelven a emitir 3.000 bonos, y las empresas comerciales, hosteleras y de servicios del municipio podrán adherirse a la campaña.

Bezeroek 40 euroko bonuak eskuratuko dituzte eta 50 euroko azken balioa izango dute kontsumoa egiteko. 10 euroko alde hori enpresa parte-hartzaileen bezeroei emandako diru-laguntzaren zenbatekoa da.

El coste de la adquisición de cada bono es de 40€, para realizar un consumo por valor final de 50€. Los 10€ de diferencia es la cantidad subvencionada a los/as clientes/as de las empresas participantes.

**3.2.- ELKARREKIN PODEMOS: Ekitaldi jendetsuen berri ematea Suhiltzaileen Zerbitzuari. Sarrera erregistroa: 28163.**

**3.2.- ELKARREKIN PODEMOS: Información de actos multitudinarios al Servicio de Bomberos. Registro de entrada: 28163.**

Ignacio Robles Fernandezek galdera irakurri du.

Ignacio Robles Fernández da lectura a la pregunta.

Presidenteak azaldu du Getxon antolatzen diren ekimen guztiei buruzko informazioa ematean bete egiten direla aplikatu beharreko araubidean jasotako eskakizunak, albo batera utzita ekimenak jendetsuak diren edo ez.

La Presidenta explica que la comunicación de todos los actos, sean multitudinarios o no, que se realizan en Getxo cumplen con todos los requisitos exigidos por la normativa aplicable.

Paellen ekimenari dagokionez esan du bide publikoen ekitaldiak antolatzeko baimenak izapidetzen dituen sailaren arabera, ekimenaren berri dutela Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak eta Larrialdien Zuzendaritzak. Era berean, inguruko Suhiltzaile Zerbitzuari ekimenaren berri ematen zaio.

Respecto al evento de Paellas indica que según la información proporcionada por el departamento que tramita las autorizaciones de los eventos en la vía pública, tienen conocimiento del evento tanto la Dirección de Juegos y espectáculos del Gobierno Vasco como la Dirección de Emergencias. Asimismo, se comunica al Servicio de Bomberos de la demarcación la celebración de este evento.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Getxoko Txirrindularitza Zirkuituari dagokionez esan du zirkuitua udalerri bat baino gehiagotik igarotzen dela, eta beraz, baimena Eusko Jaurlaritzak eman behar duela, bertan badakitelarik Getxon ekimen hori antolatzen dela.

Respecto al Circuito Ciclista Getxo, señala que el mismo afecta a más de un municipio por lo que su autorización es competencia del Gobierno Vasco, conocedor del desarrollo del evento en el municipio de Getxo.

Bukatzeko esan du ekitaldi jendetsuei buruzko informazioa Suhiltzaileen Zerbitzuari ematen zaiola.

Concluye indicando que se da traslado de la información sobre los eventos multitudinarios al Servicio de Bomberos.

Ignacio Robles Fernandezek erantzun du bera izan zela Artazako Suhiltzaile Zerbitzuko suhiltzaile kaboa txirrindularitza proba horretan, eta ez zuela aurretiaz informaziorik jaso, eta bere lana egiteko informazio hori jasotzea ezinbestekoa dela adierazi du.

Ignacio Robles Fernández contesta que él fue el bombero cabo en el Servicio de Bomberos de Artaza el día de la prueba ciclista indicada y que no llegó información de la misma, siendo necesaria la información para el desarrollo de su trabajo.

Era berean esan du beste udalerri batzuetan ohiko moduan kale mozketari buruzko informazioa Suhiltzaileen Zerbitzuari bidaltzen zaiola.

Asimismo, indica que es práctica habitual en otros municipios trasladar información del corte de calles al servicio de bomberos.

Presidenteak esan du Getxoko ekimenei buruzko informazioa beste administrazio batzuetara bidaltzen dela, eta askotariko erakundeetako teknikarien arteko harremana ona dela. Zehazki, Ignacio Robles Fernandezek aipatutako bi ekimenei dagokienez esan du ez dagoela jasota Suhiltzaileen Zerbitzuak kexarik aurkeztu zuenik.

La Presidenta insiste en que se da traslado a otras administraciones de la celebración de eventos en el municipio de Getxo, siendo fluída la relación entre los técnicos de diversas instituciones. Y en concreto, respecto a los dos eventos que indica Ignacio Robles Fernández no se tiene constancia de queja del Servicio de Bomberos.

Bukatzeko, Ignacio Robles Fernandezi esan dio egokia litzatekeela bere lan profesionala eta udalean duen zeregina nahastuko ez balitu.

Finaliza su exposición indicando a Ignacio Robles Fernández que agradecería que no mezcle su condición profesional con su condición de corporativo de este Ayuntamiento.

**3.3. - EH BILDU: Ordenantza fiskalen aldaketa argitaratzea. Sarrera erregistroa: 31389.**

**3.3.- EH BILDU: Publicidad de la modificación de las ordenanzas fiscales. Registro de entrada: 31389.**

Ibon Rodriguez Larrinagak galdera irakurri du.

Ibon Rodriguez Larrinaga lee la pregunta.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Ainhoa Galduroz Alvarezek esan du Ordenantza Fiskalen aldaketaren izapidetzea udalaren webgunean eta gardentasun atarian argitaratu dela. Beste batzuetan bestelako bitartekoak erabili izan dira horretarako, besteak beste Getxo Gerri eta prentsa oharrak, baina erantzunik egon ez zenez, oraingoan erabaki dute informazioa proposamenak osoko bilkuran jorratu ondoren eta aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta egunkari garrantzitsuenetan argitaratzea onetsi ondoren argitaratuko dela.

Ainhoa Galduroz Alvarez expone que la tramitación de la modificación de las Ordenanzas Fiscales se ha difundido en la Web municipal y en el portal de transparencia. En ocasiones anteriores se ha podido difundir en otros canales como Getxo Gerri y nota de prensa, pero la respuesta fue inexistente, por lo que esta vez se ha decidido que se publique la información cuando se eleven las propuestas al Pleno y se anuncie la aprobación de las modificaciones en el Boletín Oficial de Bizkaia y en diarios de mayor difusión.

Ibon Rodriguez Larrinagak gaitzetsi du herritarrek parte hartzeko aukerarik eman ez izana hain garrantzitsua den gai batean, horretarako beste batzuetan parte-hartzea baxua izan zela argudiatuz.

Ibon Rodriguez Larrinaga crítica no haber dado opción a la participación ciudadana en un tema que tanto le afecta, argumentando la poca participación habida en otras ocasiones.

**3.4. - EH BILDU: Herritarrei bide publikoan egingo diren obren berri ematea. Sarrera erregistroa: 31656.**

**3.4.-EH BILDU: Información de obras en la vía pública a la ciudadanía. Registro de entrada: 31656**

Itxaso Maseda Saratxok galdera irakurri du.

Itxaso Maseda Saratxo da lectura a la pregunta.

Ainhoa Galduroz Alvarezek esan du Lurraldeko Informazio Batzordean Azpiegitura eta Zerbitzuetako teknikariak esan duen bezala, Komunikazio Sailak eta Azpiegitura eta Zerbitzuetako Sailak jarduketa protokoloa dutela. Beraz, Komunikazio Batzordeak udalerrian gauzatu beharreko obrei buruzko informazioa jasotzen duenean, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Sailarekin koordinazioan erabakitzen dute gauzatu beharreko jarduketak zeintzuk diren herritarren inpaktuaren arabera, eta sare sozialetan, Getxo Berrin edo atarietan jakinaraztearen egokitasuna erabakitzen dute.

Ainhoa Galduroz Alvarez informa que tal como ha comentado el Técnico de Infraestructuras y Servicios en la comisión informativa de Territorio, existe un protocolo de actuación del departamento de Comunicación y el departamento de Infraestructura y Servicios. De modo que cuando el departamento de Comunicación recibe información de las obras a realizar en el municipio, en coordinación con el departamento de Infraestructura y Servicios deciden las actuaciones a realizar, en función del impacto de la ciudadanía y analizan la conveniencia de comunicarlo en redes sociales, Getxo Berri o través de aviso en los portales.

Malakateko obrari dagokionez esan du bi prentsa ohar argitaratu zirela eta udalaren

En la obra realizada en Malakate a la que se refiere la pregunta, en concreto, indica que

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



webgunean eta sare sozialetan horri buruzko informazioa jarri zutela.

se publicaron dos notas de prensa y se difundió información en la Web municipal y las redes sociales.

**3.5. EH BILDU: Getxo Gertuko pantailak Sarrera erregistroa: 31660.**

**3.5. EH BILDU: Pantallas de Getxo Gertu. Registro de entrada: 31660**

Ibon Rodriguez Larrinagak galdera irakurri du.

Ibon Rodriguez Larrinaga da lectura a la pregunta.

Ainhoa Galduroz Alvarezek esan du bide publikoan jarritako "Getxo Gertuko" gailu guztietatik gaur egun bi geratzen direla. 2019an gailu horiekin inbertitutako diruari dagokionez esan du ez dela gasturik egon. Eskuratze kostua 172.000 eurokoa izan zen, eta beste administrazio batzuk 132.000 euroko diru-laguntza eman zuten, eta 2016ra arteko mantentze eta konpontze kostuak 66.500 eurokoak izan ziren.

Ainhoa Galduroz Alvarez informa que de todos los aparatos "Getxo Gertu" instalados en la vía pública en la actualidad quedan colocados dos. Respecto al importe de dinero invertido en estos aparatos en 2019, indica que no ha habido gasto alguno. El coste de adquisición fue de 172.000 euros, habiendo recibido subvención por importe de 132.000 euros de otras administraciones, y el coste del mantenimiento y reparación hasta el 2016 fue de 66.500 euros.

Udalak komunikazio modu horri egindako balorazioa positiboa da. Esan du orain dela 10 urte martxan jarritako ekimena dela berriei buruzko informazioa emateko, eta herritarrek erantzun ona eman zutela.

La valoración municipal de esta forma de comunicación es positiva. Añade que fue una iniciativa que arrancó hace 10 años para informar de novedades y que fue bien acogida por la ciudadanía.

Ibon Rodriguez Larrinagak esan du bere ustez arraroa dela orain erantzuna Komunikazio Sailak ematea, aurretiaz informazio hori Sustapen Ekonomikoko Sailak ematen zuelako. Ainhoa Galduroz Alvarezek erantzun du hasiera batean ekimenaren bultzatzailea Sustapen Ekonomikoko Saila izan arren, gaur egun sail arduraduna Komunikazio Saila dela.

Ibon Rodriguez Larrinaga manifiesta su extrañeza de que ahora la respuesta se dé desde el departamento de Comunicación cuando con anterioridad correspondía dar esta información al departamento de Promoción Económica, a lo que Ainhoa Galduroz Alvarez contesta que si bien en un inicio el departamento promotor de esta iniciativa fue Promoción Económica, en la actualidad el departamento responsable es Comunicación.

Bukatzeko, Ibon Rodriguez Larrinagak galdetu du ea noiz kenduko dituzten bide publikoan dauden gailu biak, eta Ainhoa Galduroz Alvarezek erantzun dio ez dagoela horretarako egunik zehaztuta.

Finalmente, Ibon Rodriguez Larrinaga pregunta cuándo se van a quitar los dos aparatos que están instalados en la vía pública, a lo que Ainhoa Galduroz Alvarez contesta que no dispone de información de una fecha concreta.

**3.6. PP: Getxo Irratiko programazioari, kostuari eta langileei buruzko informazioa. Sarrera erregistroa: 31914.**

Francisco J. Elorza Hormaechek galdera irakurri du.

Ainhoa Galduroz Alvarezek erantzun du gaur egun ez dagoela inor Getxo Irratian lan egiten. Ez dago irrati programaziorik, eta ordenagailu bidez jartzen da musika. Giza baliabideak erabiltzeari buruz hausnartu ondoren, giza baliabide horiek komunikazio eraginkortasun handiagoa duten zereginetarako erabiliko direla erabaki da. 2019ko ekainetik aurrera udaleko teknikariek ez dute irratiko lanik egiten.

Lokuzio motzetarako inbertsioak eta ekipamenduak erabiltzen dira eta 2 espazio teknikariek eta kazetariek erabiltzen dituzte onenak diren komunikazio zereginetarako.

2017ko ekitaldian 4910 aurrekontu programako 2. kapituluan 27.400 euro zeuden, eta zenbateko handi bat, Informatika Sailak hala aholkatuta, ikus-entzunezkoen zerbitzaria ordezkatzeko erabili zen; zerbitzari berria komunikazio kabinete osoak erabiltzeko da, ez bakarrik Irrati Zerbitzuak. 2018an gastua 11.600 eurokoa izan zen.

Aurrekontu programa 4910 da, 2. kapitulua, 2120000 makinak eta instalakuntzak, 2250400 estatuko zergak eta 2260100 kanonak partidek osatzen dutelarik.

Azpimarratu du gaur egun ez dagoela irrati programaziorik, baina irrati lizentzia mantendu egin dela, etorkizunean beste zerbait proposatzen baldin bada.

Francisco J. Elorza Hormaechek galdetu du ea zenbat kostatzen den lizentzia

**3.6. PP: Información sobre personal, costo y programación de Getxo Irratia. Registro de entrada: 31914.**

Francisco Javier Elorza Hormaeche lee la pregunta.

Ainhoa Galduroz Alvarez contesta que en la actualidad no hay ningún empleado trabajando en Getxo Irratia. No hay programación de radio, sino que se emite música aleatoria por ordenador. Tras una reflexión sobre el destino de los recursos humanos se ha optado por utilizar estos recursos para tareas de mayor eficacia comunicativa. Desde junio de 2019 ningún técnico municipal hace radio.

Se utilizan las inversiones y equipamientos para locuciones cortas y 2 espacios se utilizan por técnicos y periodistas para el desempeño de tareas comunicativas más óptimas.

En el ejercicio de 2017 en el programa presupuestario 4910 capitulo 2 había 27.400 euros, de los que un importe elevado se utilizó por recomendación del departamento de Informática para sustituir el servidor de audiovisuales por otro más moderno, que diera servicio a todo el gabinete de comunicación, no solo al servicio de radio. En 2018 el gasto fue de 11.600 euros.

El programa presupuestario es el 4910, capitulo 2, integrado por la partida 2120000 maquinaria e instalaciones, 2250400 tributos estatales y 2260100 cánones.

Reitera que actualmente no hay programación de radio, si bien se ha optado por el mantenimiento de la licencia de radio, por si a futuro se plantea otra cosa.

Francisco Javier Elorza Hormaeche pregunta cuál es el coste del mantenimiento de la

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



mantentzea, eta Ainhoa Galduroz Alvarezek esan du une honetan ez dakiela.

Ibon Rodriguez Larrinagak galdetu du ea zein eragin duen irrati programaziorik ez egoteak gaur egungo kirol informazio emateko programaren kontratuan. Ainhoa Galduroz Alvarezek esan du une honetan ez dakiela, eta beraz, hurrengo bileran erantzungo duela.

**3.7. EH BILDU: Lonja hutsen arazoa. Sarrera erregistroa 32427.**

Itxaso Maseda Saratxok galdera irakurri du.

Iñigo Urkitza Yañezek esan du gobernu taldeak lonja hutsei buruzko azterketa bat duela, eta Mirene Zabalgogeazcoa Llodiori eman dio hitza, horri buruzko laburpena egiteko.

Mirene Zabalgogeazcoa Llodiok azaldu du azterketan lonjen gaur egungo egoera aztertzen dela, eta horretarako hiru informazio iturri erabili direla, besteak beste merkataritza jardueren datu basea eta Eusko Jaurlaritzako eta katastroko datu baseak, lokalak identifikatzen dituztenak.

Esan du Getxon ez dela gainditzen Bizkaiko espazio hutsen batez besteko kopurua. Eta proiektu handi batean lanean ari direla espazioak okupatzea sustatzeko dinamizazio jarduketekin eta neurri ekonomikoekin, hutsik dagoen industrialdea ere kontuan hartu delarik.

Iñigo Urkitza Yañezek esan du plan orokor bat gauzatzen ari direla espazio hutsen arazoa konpontzeko.

licencia, a lo que Ainhoa Galduroz Alvarez contesta que en este momento no conoce ese dato.

Ibon Rodriguez Larrinaga interviene preguntando cómo afecta la falta de programación de radio al contrato existente para el programa de información deportiva. Ainhoa Galduroz Alvarez contesta que no dispone de esa información en este momento, por lo que se dará respuesta a esta cuestión en la siguiente comisión.

**3.7. EH BILDU: Problemática lonjas vacias. Registro de entrada 32427.**

Itxaso Maseda Saratxo da lectura a la pregunta.

Iñigo Urkitza Yañez indica que el equipo de gobierno dispone de un estudio de la situación de las lonjas vacías, y da la palabra a Mirene Zabalgogeazcoa Llodio que resumirá el mismo.

Mirene Zabalgogeazcoa Llodio explica que el estudio contempla el diagnostico actual de la situación de las lonjas, con tres fuentes de información como la base de datos de actividades comerciales y base de datos del Gobierno Vasco y del Catastro, que identifica cada uno de los locales.

Añade que no estamos por encima de la media de Bizkaia en espacios vacíos. Y que se está trabajando en un proyecto de importante envergadura con actuaciones de dinamización y medidas económicas para fomentar la ocupación de los espacios, incluyendo la ocupación del parque empresarial vacío.

Iñigo Urkitza Yañez añade que se está trabajando en un plan global para solucionar la situación de los espacios vacíos.

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Ibon Rodriguez Larrinagak adierazi du gustatuko litzaiokeela azterketaren kopia bat jasotzea, eta esan du Bizkaia baino egoera hobean egotea ez dela berri ona, 2017an gobernu taldeak erantzun berdina eman baitzuen, eta orain neurri zehatzak ezartzeko garaia dela uste du plan orokorra jorratzen den bitartean.

Ibon Rodriguez Larrinaga interviene manifiestando que agradecería que se le diera copia del estudio existente, y añade que estar en una situación mejor que en Bizkaia no es buena noticia, y que ya en 2017 el equipo de gobierno dio la misma respuesta que ahora, pero que ya es hora de implementar medidas concretas mientras se reflexiona sobre el plan global.

Iñigo Urkitza Yañezek bukatzeko azpimarratu du planean bakarrik ez dagoela jasota lonjak betetzea, baizik eta plan estrategikoa dela, azterketa orokor batean kirol jarduerak eta kultura jarduerak ere barne hartzen direlarik.

Iñigo Urkitza Yañez finaliza haciendo hincapié en que el plan no sólo incluye la ocupación de las lonjas, sino que se trata de un plan estratégico que se refiere también a actividades deportivas y culturales dentro de un estudio global.

**Eta ostean ahozko galderen tarteari ekin zaio:**

**A continuación se abre el turno de preguntas verbales:**

- Ignacio Robles Fernandezek 2019ko Paellen eta Txirrindularitza Zirkuituko autobabes planaren kopia eskatu ditu, eta era berean, udalerriko kale mozketei buruzko informazioa ere eskatu du.

- Ignacio Robles Fernández solicita copia del plan de autoprotección de Paellas y Circuito ciclista Getxo 2019, y asimismo, pide información relativa al corte de calles del municipio.

Presidenteak erantzun du espedienteak eskuragarri daudela sailetan, eta obrengatik egiten diren kale mozketei buruzko informazioa ez dela Babes Zibileko Sailaren eskumena.

La Presidenta contesta que los expedientes están a su disposición en los departamentos correspondientes, y en relación a la información del corte de calles por obras no es competencia del departamento de protección civil.

- Ignacio Robles Fernandezek 2016ko Market Plataforma Digitalaren inguruan galdetu du.

- Ignacio Robles Fernández pregunta por la Plataforma Digital Market 2016.

Mirene Zabalgogeazcoa Llodiok, Getxolaneko teknikariak, esan du Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua dela, eta Getxo proiektua ezartzeko udalerri pilotua dela, eta plataforma digitala egin zela CECOBIrekin lankidetzan.

Interviene Mirene Zabalgogeazcoa Llodio, Técnica de Getxolan, para informar que es un proyecto liderado por la Diputación Foral de Bizkaia, siendo Getxo el municipio piloto para su implantación y que había una plataforma digital en colaboracion con CECOBI.

Ibon Rodriguez Larrinagak esan du aste honetan plataforma ez dagoela aktibatuta.

Ibon Rodriguez Larrinaga indica que esta semana no está activa esta plataforma. A lo

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Eta Mirene Zabalgogeazcoa Llodiok erantzun du hornitzailea aldatu dutela, eta urtea bukatu ondoren arduradunekin horri buruz hitz egingo duela.

que Mirene Zabalgogeazcoa Llodio contesta que ha habido un cambio de proveedor y que antes de fin de año se van a poner en contacto con los responsables para esta cuestión.

- **Keltsek galdetu du ea herritarren beste galderarik dagoen**. Ez dago galderarik.

- **Keltse pregunta si hay alguna pregunta de la ciudadanía**. No hay preguntas.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat eman du egun horretako 12:05 direnean, horrela, bere emaitzarekin akta hau luzatu da, nirekin batera Batzordeburu andreak ere sinatu duela, hori guztia nik, idazkari naizenak, ziurtatzen dut.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 12:05 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, la Secretaria, doy fe.